Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2003ko apirilak 1 asteartea
62 Zenbakia

Martes 1 de abril de 2003
Número 62

## LABURPENA — SUMARIO

| | Orrialdea |
|---|---|
| 3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak. | 5.985 |
| 4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa...... | 5.986 |
| 5 Estatuko Administrazioa................................ | 6.018 |
| 7 Udal Administrazioa.................................... | 6.031 |

| | Página |
|---|---|
| 3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa........... | 5.985 |
| 4 Administración del T.H. de Gipuzkoa..................... | 5.986 |
| 5 Administración del Estado................................ | 6.018 |
| 7 Administración Municipal.................................. | 6.031 |

# 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK 3

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Martxoaren 31ko 22/2003 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunde deia eginez.*

Eusko Legebiltzarrak martxoaren 27an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruz emandako 1/1987 Legeak ezartzen du 7.1. artikuluan, hauteskundeetarako deia Diputatu Nagusiak egingo duela, horretarako egun eta epeak udal hauteskundeetarakoekin bat etoraraziz.

Lege horretako 7.3. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, deialdiko Dekretuak ezarriko du hauteskunde eskualde bakoitzean hautatu beharreko Ahaldun-Batzarkideen kopurua, eta hauek banatuko dira, lege testu horretako 3. artikuluari jarraituz, hauteskunde eskualde bakoitzeko biztanleriaren arabera. Horretarako, herri bakoitzeko ofizialki onartutako biztanleria izan da oinarri, 2002ko urtarrilaren 1ari buruzkoak.

Horren indarrez, Lege horrek diputatu nagusi honi ematen dion ahalmena erabiliz,

XEDATZEN DUT

*1. artikulua.* Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ahaldun-Batzarkideak izendatzeko hauteskundeetarako deia egitea.

# DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 22/2003, de 31 de marzo, sobre convocatoria de elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa.*

La Ley del Parlamento Vasco 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, determina en su artículo 7.1 que la convocatoria de elecciones será realizada por el Diputado General, haciendo coincidir la fecha y plazos de las mismas con los de las elecciones municipales.

De conformidad con lo previsto en el artículo 7.3 de la citada Ley, el Decreto de convocatoria establecerá el número de Procuradores-Junteros a elegir en cada circunscripción, los cuales, según el artículo 3 del mismo texto legal, se distribuirán en proporción a la población de cada circunscripción electoral. A estos efectos se han tenido en cuenta las cifras de población oficialmente aprobadas, referidas al 1 de enero de 2002.

En su virtud, haciendo uso de la facultad que a este Diputado General otorga la mencionada Ley,

DISPONGO

*Artículo 1.* Se convocan elecciones para la designación de Procuradores-Junteros de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

*2. artikulua.* Hauteskunde hauek 2003ko maiatzaren 25ean egingo dira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruz, Eusko Legebiltzarrak martxoaren 27an emandako 1/1987 Legean ezarritako era eta terminoetan.

*3. artikulua.* Hauteskunde eskualde bakoitzean aukeratu beharreko Ahaldun-Batzarkideen kopurua ondoko hau izango da:

a) «Donostialdea» eskualdea, Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriek osatzen dutena:

Hamazazpi Ahaldun-Batzarkide (17).

b) «Bidasoa-Oiartzun» eskualdea, Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerriek osatzen dutena:

Hamaika Ahaldun-Batzarkide (11).

c) «Oria» eskualdea, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Arama, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Orendain, Orexa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Urretxu, Billabona, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil eta Zumarragako udalerriek osatzen dutena:

Bederatzi Ahaldun-Batzarkide (9).

d) «Deba-Urola» eskualdea, Aia, Aizarnazabal, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia Beizama, Bergara, Bidegoian, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Eskoriatza, Getaria, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñati, Orio, Soraluze, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako udalerriek osatzen dutena.

Hamalau Ahaldun-Batzarkide (14).

*Amaierako xedapena.* Foru Dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2003ko martxoaren 31a.—Roman Sudupe Olaizola, Diputatu Nagusia. (3410)

*Artículo 2.* Dichas elecciones se celebrarán el 25 de mayo de 2003, en la forma y términos establecidos en la Ley del Parlamento Vasco 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

*Artículo 3.* El número de Procuradores-Junteros a elegir por cada circunscripción electoral será el siguiente:

a) Circunscripción «Donostialdea», integrada por los Municipios de Astigarraga, Donostia-San Sebastián, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil:

Diecisiete Procuradores-Junteros (17).

b) Circunscripción «Bidasoa-Oiartzun», integrada por los Municipios de Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun y Pasaia:

Once Procuradores-Junteros (11).

c) Circunscripción «Oria», integrada por los Municipios de Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzaga, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Arama, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Orendain, Orexa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Urretxu, Villabona, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil y Zumarraga:

Nueve Procuradores-Junteros (9).

d) Circunscripción «Deba-Urola», integrada por los Municipios de Aia, Aizarnazabal, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate o Mondragón, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bergara, Bidegoyan, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Eskoriatza, Getaria, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñati, Orio, Soraluze-Placencia de las Armas, Zarautz, Zestoa y Zumaia:

Catorce Procuradores-Junteros (14).

*Disposición Final.* El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 31 de marzo de 2003.—El Diputado General, Roman Sudupe Olaizola. (3410)

# 4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 4

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*FORU DEKRETU-EBAZPENA, apirilaren 19a, Larunbat Santua, jaieguntzat hartzen duena.*

Diputatu Nagusiak martxoaren 24an honako Foru Dekretu-Ebazpen hau eman duela jakinarazten zaie herritar guztiei:

«Apirilaren 19a, Larunbat Santua, jaieguntzat hartuko da eta hurrengo lanengunena, apirilaren 22an, bukatuko dira egun horretan bukatzekoak ziren edozein epe, betebehar edo eskubide, Gipuakoako Foru Aldundiaren zerikusia dutenak».

Donostia, 2003ko martxoaren 25a.—Ignacio Chacón Pacheco, Araugintzako Zuzendari Nagusia.

(3411)

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL-RESOLUCION por el que se declara inhábil el Sábado Santo día 19 de abril, a los efectos que se determinan.*

Se hace público que con fecha 24 de marzo, se ha dictado por el Excmo. Sr. Diputado General, el siguiente Decreto Foral-Resolución:

«Se declara inhábil el Sábado Santo día 19 de abril, al sólo efecto de trasladar al siguiente día hábil, 22 de abril, el vencimiento de cualquier plazo, obligación o derecho relacionados con la Administración de la Diputación Foral de Gipuzkoa».

Donostia-San Sebastián, a 25 de marzo de 2003.—El Director General de Régimen Jurídico, Ignacio Chacón Pacheco.

(3411)